



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) • CIF: P3175000C

Tel: 948 76 43 75

jvaezkoa@infolocal.org
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, Aezkoako Etxean, 2020ko urriaren 24ean, 12:00etan, bildu dira Aezkoako Batzarre Nagusiko kideak hautatzeko irailaren 27an egindako hauteskundeetan hautatutako honako hauek:

Jaun/andereak:

Bueno Reca, Carlos - Eseberri Colomo, Maddi - Galarza Larrayoz, Maria Carmen - Martínez Juango, Ainhoa - Merino Iriarte, Juan Esteban - Reta Trevejo, Leire - Santomá Vicens, Gonzalo - Zabalza Barberena, Izaskun.

Idazkari Batzarre Nagusiarena aritu da. Bilkuraren xedea izan da Aezkoako Batzarre Nagusia eratzea, haren presidente eta presidenteordea hautatzea, Aezkoako Batzarre Nagusiaren Ordenantza Orokorrean eta Hauteskundeen Araubide Orokorren buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz.

Horretarako, adin mahaia osatu da Carmen Galarza Larrayoz andrearekin, adinez zaharrena baita, eta Maddi Eseberri Colomorekin, gazteena delako.

LEHENA- KARGU-HARTZEA

Hautatutakoaren identitatea egiaztatuta, honakoa zin egin dute: ¿Jura o promete usted por su conciencia y honor cumplir fielmente con las obligaciones del cargo de vocal de la Junta General del Valle de Aezkoa? Zin edo hitz ematen duzu zure konzientzia eta ohoreagatik, Aezkoako Batzarre Nagusikide karguaren eginkizunak zintzoki beteko dituzula?

Bildutako guztiek “Bai, Zin egiten dut” erantzunda, kargua hartu eta Aezkoako Batzarre Nagusia osatutzat hartu da.

BIGARRENA.- BATZARREBURU ETA BATZARREBURUORDEA HAUTATZEA

Ordenantza Orokorren 14. artikulua araberan, batzarreburua eta batzarreburuordea hautatzeari ekin zaio.

Adin-mahaia boto paperak banatu ditu, mahaiburua hautatzeko boto pertsonal eta sekretuaren bidez. Jakinarazi da lehen bozketan botoen gehiengo absolutua lortu behar dela, eta bigarren bozketan gehiengo sinplea.

Botoak zenbatu ondoren, emaitza hau eman da: Carlos Bueno Reca: 8 boto. Lehenengo bozketan gehiengo osoa lortu duenez, batzordeburu izendatu dute.

Ondoren, sistema bera erabiliz, bailarako lehendakariordea hautatzeko bozketa egin da, eta emaitza hau izan da:

- Ainhoa Martínez Juango: 6 boto
- Izaskun Zabalza Barberena: 2 boto

Lehenengo bozketan gehiengo osoa lortu duenez, Ainhoa Martínez Juango batzordeburuordea izendatu dute.

Jarraian, Batzarre Nagusiaren funtsen kontaketa buruzko akta, 2020ko urriaren 23koa, irakurri da. Kargua uzten duen batzarreburuak eta Batzarre Nagusiko kontu-hartzaileak sinatua dago, eta hirurogeita hamar mila eta zortziehun euro eta hirurogeita hiru zentimoko kontabilitate-izakin agertzen du.

Funtsen kontaketa aurkeztuta, batzarreburuak eskerrak eman dizkie orain arte Batzarre Nagusian parte hartu duten guztiei eta une honetan lanean hasi diren berriei, aurkeztera animatu direlako eta haranaren alde lan egiteko gogoia dutelako.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez baitago, bilkura bukatutzat eman da hamabiak eta hogeita hamar minutuak zirela. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta, nik, idazkariak, egiaztatzen dut.